

BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL TURISMO S.A.REN ETIKAREN ETA GOBERNU ONAREN KODEA

Dokumentu honek Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia - Agencia Vasca del Turismo S.Ari egokitzen dio "Euskal Autonomi Erkidegoko Sektore Publikoaren zerbitzura dauden gobernu kide, goi-kargu, aldi baterako langile eta gainerako zuzendaritza-karguen Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea"n (Eusko Jaurlaritzak 2011ko maiatzaren 10ean onartua) ezarritakoa.

BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentzia- Agencia Vasca del Turismo, S.Aren
Administrazio Kontseiluak onartua 2011ko abenduaren 21ean

1.- XEDEA

BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Turismo, S.A.ren Etikaren eta Gobernu Onaren Kode honen helburua da zehaztea zein portaera-printzipio eta -arau bete behar dituzten pertsona guztiek (langileek zein zuzendaritza-karguek) beren zereginak gauzatzean nahiz laneko harremanetan, legez ezarritakoaz haratagoko gardentasun- eta eraginkortasun-esparru batean.

2.- APLIKAZIO ESPARRUA

BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Turismo, S.A.ko (aurrerantzean Sozietatea) kide guztiek bete beharko dute kode hau.

Baldin eta sozietateko kideak beste sozietate batzuetako Administrazio Kontseiluko kide ere badira, agiri honetan jasotako en antzeko printzipio eta baloreak arautzen dituzten kodeak aplikatuko dituzte.

3.- PRINTZIPIO OROKORRAK

Kode honi atxikitako pertsonen ordenamendu juridikoari jarraiki garatuko dituzte beren zereginak, hemen zerrendatutako printzipio eta balore etikoak betez:

- Objektibotasuna.
- Efikazia, efizientzia eta errentagarritasun soziala.
- Dedikazio osoa, fede ona eta eredugarritasuna.
- Austeritatea eta zintzotasuna.
- Gardentasuna, irisgarritasuna eta konfidentzialtasuna.
- Herritarren parte-hartzea eta lankidetzeta.
- Erantzukizuna eta elkarlana.

4.- BALIO ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKOAK ERRESPETATZEA

Kode honi atxikitako pertsonen berdintasun, askatasun, justizia eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla bermatuko dute beren jarduerak gauzatzean.

Haien portaerak guztiz errespetatuko ditu giza eskubideak eta askatasun publikoak.

Ez dute egingo jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo bestelako egoera pertsonal, politiko edo sozialen batengatik diskriminazioa sor dezakeen inolako jarduerarik.

Tolerantziak jokatu dute, eta aniztasuna sustatu dute beren jardueretan. Horrek esan nahi du forma kultural, politiko eta sozial guztiak errespetatu, aintzat hartu eta onartu dituztela, betiere giza eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeriarik erabiltzen ez badute.

Sozietateak ingurumena babesteko eta lurraldearen zentzuzko antolamendu iraunkorra bideratzeko politikak eta ekintzak sustatu dituzte bere jardueraren eremuan.

Sozietateko kide guztiek zorrotz beteko dituzte bai indarrean dagoen legeria eta baita ere segurtasun eta laneko arriskuen prebentzio arloan zein ingurumeneko politikan ezarritako barne araudi guztiak.

5.- OBJEKTIBOTASUNA

Erabakiak hartzean, objektibotasunez eta inpartzialtasunez aztertuko dira legearen arabera onargarriak diren aukera guztiak.

Ez dute boterea erabiliko abantailak edo onurak lortzeko, bereziki beren jardueraren edo harekin lotutakoak garatzeagatik sor daitezkeen abantailak badira.

Ez dute ezer egingo pertsona baten mesederako izapideak bizkortu edo ebatzeko, eta, bereziki, beren edo beren familia edo gizarte-ingurunearen mesederako bada.

6.- EFIKAZIA, EFIZIENTZIA ETA ERRENTAGARRITASUN SOZIALA

Sozietateko kideek efikazia, ekonomia eta efizientiaren printzipioen arabera jardungo dute, interes orokorra eta ezarritako helburuak betez betiere.

Sozietateak bikaintasunarekiko konpromisoa hartu eta bultzatuko du, beraz, helburutzat izango du kalitate eta bikaintasun maila handiena lortzea bai bere jarduera garatzean eta baita ere zerbitzuak eskaintzean. Era berean, berrikuntza, garapena eta etengabeko hobekuntza sustatuko ditu goi mailako kalitatea lortzeko.

Sozietateko kide guztiek beren lankidetzeta eta profesionaltasuna eta zerbitzatzeko gogoia jarriko dute bezeroen igurikapenei erantzuteko, eta ahalegina egingo dute haien nahiei aurrea hartzeko, ongi jakinik zeintzuk diren beren premiak.

Sozietateak pertsona guztien prestakuntza eta gaikuntza sustatuko ditu, beren garapen profesionalaren bidez errendimendu handiagoa lor dezaten zereginak gauzatzeko orduan.

7.- DEDIKAZIO OSOA, FEDE ONA ETA EREDUGARRITASUNA

Sozietateko Zuzendaritzak bere ekintzen bidez frogatu beharko du zeinen garrantzitsua den arauak betetzea, laguntza eskainiz zalantzak dituzten edo ez-betetze posibleei buruz informatu nahi duten pertsonari.

Sozietateko kideek dedikazio osoz garatuko dituzte beren funtzioak, uneoro eta leialki betez indarrean dagoen bateraezintasunen erregimena eta eredugarri izanez gainerakoentzat.

Sozietateak arbuiatu egingo ditu jazarpen fisikoak, psikologikoak, moralak edo autoritatearen abusuak eta baita ere pertsonen eskubideak urratu ditzaketen bestelako jarrerak.

Pertsona guztiek justiziaz eta errespetuz tratatu behar dituzte beren lankideak, nagusiak eta mendekoak, lan ingurune atsegina, osasuntsu eta segurua sortuz. Era berean, Sozietateko eta enpresa kolaboratzaileetako kideen arteko harremanak errespetu profesionalean eta elkarrekiko lankidetzan oinarrituko dira.

8.- AUSTERITATEA ETA ZINTZOTASUNA

Baliabide publikoak austeritatez administratuko ditu Sozietateak, eta ez ditu modu desegokian erabiliko; horretarako, modu arduratsuan kontsumituko du, eta baimenduta dituen protokolo gastuak eta ordezkaritza-gastuak mugatuko ditu.

Kontratatistak, hornitzaileak eta kanpoko kolaboratzaileak aukeratzeko prozesuetan parte hartzen duten Sozietateko kideek inpartzialki eta objektiboki jokatu behar dute eta kasu bakoitzerako ezarritako irizpideak aplikatuko dituzte. Ezingo da abantaila pribaturik lortu eta Sozietateko interesen eta kideen interes pertsonalen arteko gatazkak saihestuko dira, interesatuak uko egin beharko diolarik hautaketa prozesu horretan parte hartzeari edo gutxienez bere egoeraren berri eman beharko duelarik.

Sozietateko kideek ezin dute bezero edo hornitzaileen neurrigabeko opari edota arretarik onartu, baldin eta beren zereginak garatzeko baldintza gisa har badaitezke.

9.- GARDENTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Sozietateko kide guztiak informazio oso, egiazko eta puntuala eman beharko dute beren zereginarekin edota eskumen eremuarekin zerikusia duten jardueren garapenari buruz.

Sozietateko kide guztiak isilpean gorde beharko dute beren jarduera profesionala garatzeko jaso duten informazio oro eta ezingo dute behar ez bezala erabili norbere edo hirugarrenen mesedetan, ezta Sozietateak baja eman ostean ere. Zalantzaren bat badago informazioaren izaerari buruz, erreserbatutzat hartuko da kontrakorik baimentzen ez den bitartean.

10.-PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA INTERES TALDEEKIN. GOBERNU IREKIAREN PRINTZPIOAK

Sozietateak bermatuko du bere kudeaketa publikoak oso kontuan hartzen dituela interes taldeak, konpromisoa hartuz etengabe hobetuko duela emandako informazioaren, arretaren eta zerbitzuen kalitatea.

Erraztasunak emango dizkie interes taldeei Sozietatearen zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko duten eskubidea erabil dezaten, legeek ezartzen dituzten mugekin, eta hainbat mekanismo bermatuko ditu herritarren eskaera, kexa edo erreklamazioei azkar eta eraginkorki erantzuteko.

Sozietatea abegikorra eta irisgarria izango da, pertsona guztiek ulertzeko moduko hizkera garbia erabiliz, prozedurak erraztuz eta bizkortuz, zerbitzuetara sartzeko sarbide elektronikoak jarriz eta arau eta erregulazioen kalitatea hobetuz.

Bezeroek, langileek edo beste pertsona batzuek eman dizkieten datu pertsonalak babestuko ditu eta konpromisoa hartuko du bere jarduera eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoak diren datuak soilik eskatu eta erabiltzeko.

Interes-taldeekiko parte-hartzea eta elkarrizketa bultzatuko du parte-hartze eta kontsulta soilaz haratago, ahalegina eginez politika publikoen diseinuan parte har dezaten, bide horretatik, jakintza eta berrikuntza bultzatzeko. Horretarako, eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu, baita telematikoak ere.

11.-ERANTZUKIZUNA ETA ELKARLANA

Sozietateko kideek beren jardueren erantzukizuna onartuko dute, eta ez dute lankideen edota mendekoen gain jarriko arrazoi objektiborik gabe; horrez gain, maila instituzional guztiekin elkarlanean arituko dira, eskumenen egungo esparrua errespetatuz, era efikaz eta efizienteagoan laguntzeko interes orokorrari.

Sozietateak sareko lana sustatuko du eta Sozietatearen funtzionamendu egokirako interesgarri izan daitezkeen ekitaldi eta lan kolaboratiboetan parte hartzea bultzatuko du.

12.-ETIKAREN ETA GOBERNU ONAREN KODEA BETETZEA

Kode hau positiboa eta promozionala da, arau juridikoekin baino gehiago moralarekin eta ohitura sozialekin zerikusia duten portaera-jardunbideak jasotzen dituelako.

Hala ere, eraginik gabeko aitorten hutsean gera ez dadin eta ahalik eta publizitate gehien emateko, sistema hau ezarriko da kodea bete dadin.

- *Kodearen edukiari atxikitze sistema:* Sozietatean sartu baino lehen, sinatzaileak kodearen edukiarekin ados dagoela ziurtatzen duen aitorten bat egingo du. Sozietatean lehendik dauden pertsonen kasuan, ale bat jasoko dute aztertze eta, hala badagokio, edukiari atxikitze prozedura formalizatuko dute. (Eranskina)

13- KOMUNIKAZIOA, HEDAPENA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Kode hau Sozietateko pertsona guztiei aplikatu behar zaienez, guztiek ezagutu behar dute. Sozietateak erabili ohi dituen hedabideen bitartez zabalduko da kodea eta bere edukia. Bestalde, kontsultarako ere eskura daiteke, beste interes talde batzuek ezagutu dezaten.